BESTELAKO XEDAPENAK

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

5000

EBAZPENA, 2026ko azaroaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariarena, zeinaren bidez toki-erakundeek, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan, gazteak kontratatzeko 2025erako laguntzen deialdiaren babesean emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen baita.

Dirulaguntza publikoak emateko jarraitu beharreko publikotasun-printzipioa betetzeko, kontuan hartuta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26.2 artikuluak xedatutakoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira laguntzak emateko ebazpenak. Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea aipatutako dirulaguntzen onuradun izan diren erakundeen zerrenda toki-erakundeek, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan, gazteak kontratatzeko 2025erako laguntzen deialdiaren babesean emandako dirulaguntzak. Dirulaguntza horien deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2023ko uztailaren 14an egindako bileran (erabaki hori 2025eko uztailaren 14ko EHAAn argitaratu zen, 144. zenbakian). Onuradunen zerrendarekin batera, onuradun bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazten da, ebazpen honen eranskinetan azaltzen den bezala.

Bigarrena.– Berariaz aipatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Europako Gizarte Funtsaren kofinantzazioa izan dela, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 13a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendaria,
FERNANDO PARICIO CARRIÓN.

ERANSKINA

Espedientea	Entitate onuraduna	Emandako dirulaguntza (euro)
2025/GEL/000001	Añanako Kuadrilla	322.363,31
2025/GEL/000002	Gasteizko Udala	1.235.990,68
2025/GEL/000003	Okondoko Udala	87.405,93
2025/GEL/000004	Forlan	203.947,17
2025/GEL/000005	Bilbao Ekintza E.P.E.L.	2.560.732,70
2025/GEL/000006	Barakaldoren Garapen Integralerako Erakunde Autonomoa (Inguralde)	971.866,56
2025/GEL/000007	Andoaingo Udala	39.159,56
2025/GEL/000008	Balmasedako Udala	126.565,49
2025/GEL/000009	Errenteriako Udala	409.769,22
2025/GEL/000010	Aramako Udala	68.294,87
2025/GEL/000011	Abanto Zierbenako Udala	428.880,28
2025/GEL/000012	Irungo Udala	273.179,48
2025/GEL/000013	Basauriko Udala	58.270,62
2025/GEL/000014	Meatzaldeko Behargintza, S.L.	126.565,49
2025/GEL/000015	Zumarragako Udala	133.560,81
2025/GEL/000016	Aizarnazabalgo Udala	68.294,87
2025/GEL/000017	Altzagako Udala	29.135,31
2025/GEL/000018	Itsasondoko Udala	68.294,87
2025/GEL/000019	Ubideko Udala	29.135,31
2025/GEL/000021	Getariako Udala	68.294,87
2025/GEL/000022	Mungialdeko Behargintza S.L.	39.159,56
2025/GEL/000023	Pasaiako Udala	39.159,56
2025/GEL/000024	Tolosako Udala	202.169,07